

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
NEREA YEREGUI BALDA
ANDER PRADOS OTAMENDI

BERTARATU EZ DIRENAK

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2024ko azaroaren 19an arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2024-10-29KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2024-10-29ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Haizea Goikoetxea Erbiti

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko azaroaren 6an, 50/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Haizea Goikoetxea Erbitiri Beteluko udaletxeko artxiboko gela erabiltzeko baimena ematea iganda goizetan bilera egiteko.

2. Irati Garmendia

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko azaroaren 6an, 51/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Irati Garmendiari Beteluko udaletxeko erabilera anitzeko gela erabiltzeko baimena ematea igande arratsaldetan festetako bilerak egiteko.

3. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko azaroaren 12an, 52/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2024ko urriaren 29an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

4. Jose Javier Arregui

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko azaroaren 12an, 53/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Jose Javier Arregui Guruceagari pistak eta herri bideak erabiltzeko baimena ematea baso-kamioia pasatzeko.

5. Aralar Musika Eskola

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko azaroaren 13an, 54/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Inaxio Arguiñarena, Nerea Sestorain Anguera, Ane Etxeberria Arguiñarenari Indianoetxeko gelen erabilera egiteko musika entsaioak egiteko.

6. Aitor Goikoetxea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko azaroaren 13an, 55/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Aitor Goikoetxeari Beteluko frontoia erabiltzeko baimena ematea azaroaren 17an goizeko 9:30etik 13:30era bitarte, futbol salako txapelketa bat jokatzeko.

7. Haizea Goikoetxea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko azaroaren 13an, 56/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Haizea Goikoetxeari abenduaren 1ean egingen den azokan mahai bat jartzeko baimena ematea.

8. Ander Elizalde

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko azaroaren 13an, 57/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Ander Elizalderi erabilera anitzeko gela erabiltzeko baimena ematea azaroaren 16an goizeko 9:00etatik aurrera.

3. 2025. URTEKO KARGA TASAK

Batzarrari ondoko akordioa onartzea proposatzen zaio:

1. Nafarroako Toki Ogasunen 2/1995 Foru Legearen 12 eta 13. artikuluetan eta Nafarroako Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legearen 325 eta hurrengo artikuluetan zehaztutakoaren arabera, ondoko karga tasa hauek onartu dira 2025. urterako.

1.1. Lur-ondasunen gaineko kontribuzioa: karga tasa: %0,320

1.2. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: karga tasa: %3,5.

1.3. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: udalaren gutxieneko indizea:

-Hiriguneko jarduerak: udalaren gutxieneko indizea; 1,26.

-Hirigunetik kanpoko jarduerak: udalaren gutxieneko indizea; 1,20.

1.4. Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga: Onestea koefizienteak, aplikatzekoak direnak lurraren balioaren gainean sortzapenaren unean, eta balio-gehikuntzaren sortzealdia kontuan hartuta. Horiek izanen dira 2/1995 Foru Legearen 175.2 artikuluan ezarritako gehieneko koefizienteak.

Karga-tasari dagokionez, balio-gehikuntzaren sortzealdi guztietan karga-tasa bakarra ezartzea: %18.

1.5. Haurtzaindegi zerbitzuko tasa, haur bakoitzeko hilabetea. (Aplikatuko dira Nafarroako Gobernuak haur hezkuntzako ikastetxeetarako onetsitako tarifak)

2. Erabaki honek 2025. urteko urtarilaren batean hartuko du indarra.

3. Erabaki honen aurka, ondoko errekursoetako bat aurkez daiteke: a) Berraztertze errekursoa egintza hau egin duen organoari, hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita; b) Administrazioarekiko auzi-errekursoa Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan edo Epaitegian, bi hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita; c) Gora jotzeko errekursoa Nafarroako Administrazio Auzitegian, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta batzarrak aho batez onartu egin du.

4. 2025. URTEKO ORDENANTZA FISKALAK

Ez zaio Udalbatzari ordenantza fiskalen inongo aldaketarik proposatu.

5. BETELUKO UDAL PLAN OROKORRAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA

Ikusita Araizko Udalbatzak 2021eko ekainaren 21ean Udal Plan Orokorra onetsi zuela hasiera batez.

Ikusita hilabetez jendaurrean egon zela Nafarroako Aldizkari Ofizialean (2023ko urtarilaren 19an, 16. zenbakian), Udaletxeko iragarki taulan eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan iragarri ondoren.

Ikusita jendaurreko epe hori 2023ko martxoaren 20ra arte luzatu zela 2023ko martxoaren 9ko 49. Zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarri ondotik.

Ikusita lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 70 eta 71 artikuluek ezarritako gainontzeko urratsak segitu direla, udalbatzak honakoa ERABAKI DU:

1-Udal Plan Orokorrari bizilagunek egindako alegazioei Chocarro y Urmeneta SLPk prestatutako erantzunak onartzea.

2- Hasiera batez onartutako Udal Plan Orokorrari Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estragikoetako Departamentuaren txosten orokorrari eta sektorekako txostenei Chocarro y Urmeneta SLPk prestatuako erantzunak onartzea.

3-Udal Plan Orokorra behin behinekoz onestea eta bere behin betiko onarpenerako, espediente osoa Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesioaren Departamentura bidaltzea.

Akordia, Batzarrera etorritako guztiek, aho batez, onartu dute, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik.

6. BETELUKO ARAXES ESKOLAN EGUZKI PLAKA JARTZEKO PROIEKTUARENDAKO DIRULAGUNTZA ESKAERAREN ONARPENA

Beteluko Udalak "Energia Berriztagarrien sustapena" izeneko proiektua egiteko asmoa dauka. Horren arabera, eguzki plakak jarriko lirateke Araxes eskualdeko eskola publikoko teilatuan eta bertan lortutako energiarekin, eskola publikoko, frontoiko, udaletxeko, Kale Nagusia 7ko eraikin publikoko, herriko argiteri publikoko eta Zigari Elkarte darabilen eraikin publikoko energia elektrikoa hornituko liratezke. Modu berean, energia berriztagarriei buruzko jardunaldiak ere egingen dira.

Proiektu horrek ekarriko lituzkeen gastuak finantzatzeko, Beteluko Udalak asmoa du PGTEak gauza ditzaten (Leader-2023-2027 NPEPE) sustatzaile publiko eta pribatuei laguntzak emateko 2024ko deialdian dirulaguntza eskaera egitea

Hau dena ikusita, Beteluko udalbatzak ERABAKI DU:

Lehenengoa: "Energia Berriztagarrien sustapena" izeneko proiektuarendako PGTEak gauza ditzaten (Leader-2023-2027 NPEPE) sustatzaile publiko eta pribatuei laguntzak emateko 2024ko deialdian dirulaguntza eskaera egitea.

Bigarrena: Akordio hau dirulaguntza eskaera egiteko dokumentazioan eranstea.

Akordia, Batzarrera etorritako guztiek, aho batez, onartu dute.

7. CONSTRUCCIONES FRANCISCO AIERBERI JARRITAKO FIDANTZAREN ITZULTZEA

Araxes eskualdeko eskola publikoan igogailua jartzeko obren exekuzioa Construcciones Francisco Aierbe SL (B20756268) enpresari esleitu zitzaion udalbatzak 2023ko ekainaren 21ean egindako akordio bidez.

2023ko ekainaren 28an, Construcciones Francisco Aierbe SLk 4.594,56 euroko fidantza ezarri zuen, esleipen zenbatekoaren %4a hain zuzen ere.

Apirilaren 13ko Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 70.2 artikulua arabera, bermea kontratistak betebeharrak betetzearekin lotuta egonen dira berme-epea amaitu arte. Foru Lege horren 159.1 artikulua arabera, berme-epea harrera edo adostasun datatik hasita kontatzen da.

Kontratazio pleguaren arabera berme epea urtebetekoa da obren harreratik zenbatzen hasita.

2023ko azaroaren 10ean, obren azken harrera-akta sinatu zuten Lorenzo Zubillaga Goicoechea Beteluko Udaleko alkateak, Jose Miguel Rodriguez Ezpeleta zuzendari fakultatiboak, Javier Ayerbe Segurola jaunak, Construcciones Francisco Aierbe SL enpresaren ordezkari gisa.

Hau ikusirik udalbatzak honakoa erabaki du:

Lehenengoa: Construcciones Francisco Aierbe SLri fidantza itzultzea, urte bateko berme-epea iragan baita.

Bigarrena: Akordio honen berri Construcciones Francisco Aierbe SLri jakinaraztea.

Alkateak akordioa bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

8.- 5/2024 AURREKONTU ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA

Udalbatzari ondorengo 5/2024 aurrekontu aldaketaren espedientearen hasierako onarpena proposatu zaio:

1. Ezohiko kreditua: 1 3370 6250002 “erabilera anitzeko pantaila”: 1.800,00 euro.

“Gastu orokorretarako gerakina” 1 87000 sailarekin finantzatua: 1.800,00 euro

Aldaketa Nafarroako Toki Ogasunaren 2/1995 Foru Legearen 212 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera egin da.

Nafarroako Toki Ogasunari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 212. eta hurrengo artikuluen arabera eta Beteluko Udaleko 2024ko aurrekontuaren exekuzio oinarrien 9. Oinarrien arabera, espediente hau jendaurrean izanen da 15 egun naturalean udal idazkaritzan, nahi duenak aztertu ahal izateko eta hala nahi izanez gero, egoki ikusten dituzten erreklamazioak egin ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, honela onarturik dagoen espediente hau behin betikotzat joko da.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren guztiek aho batez onartu egin dute.

9. UDALBATZAREN EZAGUTZARAKO

1. Hezkuntzako Departamentuari eskolako jantokiari buruz bidalitako idatzia

Udalbatzari alkateak Hezkuntza Departamentuari eskolako jantokiari buruz bidalitako idatziaren berri eman zaio. Idatzia 2024ko urriaren 30ean bidali zen.

10. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Comercial Fervis	F. 3.207 (itzulketa)	-47,04 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. A19/2024	90,00 €
Amador Autor (ingeniero)	F. 38/2024 auditoria alumbrado	2.862 €
Wikai	F. urria	92,64 €
IDM Medical	F. 1973	128,84 €
Venus Campos Walsh	F. DFA-35	2.833,41 €
Geserlocal	F. kontabilitatea	595,73 €
Iberdrola	F. Urberoa	6,51 €
Ascensores Arga sl	F. 10611	203,28 €
Serlimpia	F. 240452	142,78 €
Serlimpia	F.240544	232,92 €
Codisna	F. 24619	287,50 €
Iberdrola	Argiztapen publikoa	354,52 €
Iberdrola	Argiztapen publikoa	617,87 €
Iberdrola	Udaleko pisua	9,52 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 63-2024	1.005,99 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 64-2024	453,75 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 65-2024	680,63 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 66-2024	90,75 €
Goienet	F. Eskola	1.109,76 €

Goiener	F. Udaletxea	747,22 €
Chocarro y Urmeneta	F.emit 2454	9.169,00 €
Chocarro y Urmeneta	F. Emit 2455	6.050,00 €
Chocarro y Urmeneta	f. emit 2456	9.196,00 €
Chocarro y Urmeneta	f. emit 2457	2.420,00 €
Puertas PAE	F. 7055 frontoiko atea	2.581,66 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Angelines Carrillo Ruiz	F. A20/2024	8,85 €
M. Garcia Satrustegui	F. Iraileko menuak	201,50 €
M. Garcia Satrustegui	F. Urriko menuak	978,90 €
	DENETARA:	43.104,49 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

11. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziak laurden gutxi direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.